| A – 28/07 | FA: 0305 LI | 2019 |
|---|---|---|

**FORU AGINDUA**

Donostia/San Sebastián, 2019ko azaroaren 22a

Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak (hemendik aurrera Departamentua) dituen helburuen artean dago lehen sektoreko lehiakortasuna eta iraunkortasuna sustatzea. Helburu hori, hiru zuzendaritza nagusi hauen bidez garatuko da: Nekazaritza eta Lurralde Orekako Zuzendaritza, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza eta Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusia. Zuzendaritza horien bitartez ari dira sustatzen gaur egungo kontrolatzeko mekanismoak eta kudeaketa ereduak hobetzeko beharra, eta, orokorrean, sektorerako egonkorrak diren informazio sistemen bidez, lan-ohitura onak zabaltzea.

Helburu horrekin, hainbat ekimen lantzen ari gara, informazio teknologiaren esparruan, sektoreari lotutako prozesu eta aplikazio informatikoen kalitatea hobetzeko, eta lehen sektoreko eragileekiko harremanean etengabeko hobekuntza sistema bat ezartzeko.

Testuinguru honetan, Departamentuan sortzen diren hainbat ekimen garatzeko beharra identifikatu da eta aribideko proiektuekin batera garatu beharko dira. Azken helburua da langile publikoaren eguneroko lana hobetzea, informazio sistemak emanez egiten dituzten operazioei babesa emateko, eta hobekuntza hori guztiaren jarraipena eta neurketa egin ahal izatea Departamentuaren helburu nagusien arabera, hori guztia herritarrei zerbitzu hobeagoa emateko helburuarekin.

Horregatik, proiektu informatikoak kudeatzeko eta dinamizatzeko zerbitzu bat kontratatu beharra planteatzen da, alde batetik, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurunekako Departamentuaren barruan proiektu desberdinen integrazioa, koordinazioa eta ikusgarritasuna kudeatzeko, eta bestetik, ziurtatzeko ekimenak Departamentuaren helburu globalekin bat datozela, eta haien jarraipena eta neurketa egin daitekeela proiektuen ikuspegi kontrolatua eta bateratua bermatuz Departamentuko eta Landa Ingurunearen alorreko zuzendaritza nagusietako langileen (Nekazaritza eta Lurralde Orekako Zuzendaritza, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza eta Landa Udalerrien Garapenerako

Entre los objetivos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, se encuentra el impulsar la competitividad y la sostenibilidad del sector primario, objetivo a desarrollar a través de tres de las Direcciones Generales que componen el mismo, a saber; Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial, Dirección General de Montes y Medio Natural y Dirección General para el Desarrollo de Municipios Rurales. Desde dichas Direcciones se está impulsando la necesidad de mejorar los actuales mecanismos de control y modelo de gestión, y en general, promoviendo el despliegue de buenos hábitos de trabajo soportados en sistemas de información estables para este sector.

Con este objetivo se está trabajando en una serie de iniciativas, en el ámbito de la tecnología de información, destinadas a mejorar la calidad de los procesos y de las aplicaciones informáticas asociadas y a establecer un sistema de mejora continua en la relación con los agentes del Primer Sector.

En este contexto, en el Departamento se ha identificado la necesidad de dinamizar las diferentes iniciativas que vayan surgiendo y que deberán solaparse a los proyectos en curso. El objetivo último es mejorar el trabajo diario del empleado público, dotándole de sistemas de información que den soporte a las diferentes operativas que realizan y que esta mejora se pueda seguir y medir de acuerdo a los objetivos generales del Departamento, todo ello en con la finalidad de prestar un mejor servicio a la ciudadanía.

Por ello se plantea la necesidad de la prestación, "de un servicio de gestión y dinamización de proyectos informáticos que gestione la integración, coordinación y visibilidad de los diferentes proyectos dentro del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y que asegure que las diferentes iniciativas estén alineadas con los objetivos globales del Departamento, y que se puedan seguir y medir, garantizando una visión controlada y conjunta de los proyectos entre el personal del Departamento, las Direcciones Generales del área de Medio Rural (Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial, Dirección General de Montes y Medio Natural, y Dirección General para el Desarrollo de

Zuzendaritza Nagusia) eta parte hartzen duten gainerako eragileen artean.

Egokia ikusten da lanak talde berak egitea; horregatik baztertu da sortaka banatzeko aukera.

Horretarako, Laborategi, Kalitate eta Nekazaritza Berrikuntzako Zerbitzuak kontratazio hori arautuko duen baldintza teknikoen agiria idatzi du. Zerbitzu horren lizitazio aurrekontua 125.000,00 euro da gehi %21eko BEZa, guztira 151.250,00 €. Kontratua gauzatzeko epea, 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da. Kontratuaren balio zenbatetsia 125.000,00 euro da, gehi BEZa, hala baitio 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 101. artikuluan.

Lanen zenbatekoa ikusirik, bidezkotzat jotzen dugu haren kontratazioa prozedura irekiaren bidez egitea, hala aurreikusten baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 131.2, 156 eta hauekin batera doazen artikuluetan.

Kontratazio espedientearen tramitazio administratiboa errazte aldera, eta espediente hori zerbitzuak emango diren urtearen aurreko aurrekontu ekitaldian hasiko denez, aldez aurretik izapidetuko da, horretarako bide ematen baitute 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 117 artikuluan, eta abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteak aldez aurretik izapidetzeari buruzkoak, 3. artikuluan.

Hori guztia ikusita, eta ados egonik, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak

## EBATZI DU

**Lehenengo.- Onartzea** zerbitzu honen kontratazio espedientea: ***LAGUNTZA TEKNIKOA, EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMO ETA LANDA INGURUNEAKO DEPARTAMENTUAREN PROIEKTU INFORMATIKOAK KUDEATU ETA DINAMIZATZEKO (A15/19-SE/L).*** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 125.000,00 euro da gehi BEZari dagozkion 26.250,00 euro, guztira 151.250,00 euro eta gauzatzeko epea urtarrilaren 1 etik 2020ko abenduaren 31 artekoa da.

Municipios Rurales), y los demás actores que participen.

Se considera que los trabajos deben realizarse por el mismo equipo por lo que no se estima su división por lotes.

A tal efecto, el Servicio de Laboratorio, Calidad e Innovación Agraria ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 125.000,00 euros más IVA (21%), total 151.250,00 € y con un plazo de ejecución hasta el 31 de diciembre de 2020. El valor estimado del contrato a los efectos del artículo 101 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público es de 125.000,00 euros más IVA.

Dada la cuantía de los trabajos se considera procedente acudir al procedimiento abierto, según lo previsto en el artículo 131.2, 156 y concordantes de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

A fin de agilizar la tramitación administrativa del expediente de contratación, y dado que el mismo se inicia en el ejercicio presupuestario inmediatamente anterior a aquél en que va a materializarse la prestación, el expediente de referencia va a ser objeto de tramitación anticipada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 117 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y en el artículo 3 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Visto todo ello, y considerado conforme, este Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

## RESUELVE

**Primero.- Aprobar** el expediente para la contratación servicios: ***ASISTENCIA TECNICA EN LA GESTION Y DINAMIZACIÓN DE PROYECTOS INFORMÁTICOS DEL DEPARTAMENTO DE PROMOCION ECONOMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL (A15/19-SE/L),*** con un presupuesto base de licitación de 125.000,00 euros más 26.250,00 euros en concepto de 21% de IVA, en total 151.250,00 euros y con un plazo de ejecución desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2020.

**Bigarren**.- Onartzea aipatutako zerbitzuaren kontratazioa arautu behar duten preskripzio teknikoen agiriak eta administrazio klausula partikularrak.

**Hirugarren.-** Espedientea aurrez tramitatzea, kontuan hartuta, beti ere, kontratua esleitu ahal izateko ezinbestekoa izango dela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020ko aurrekontuetan kreditu egoki eta nahikoa egotea, kontratazio horretatik datozen obligazioei aurre egiteko.

**Laugarren.-** Kontratua esleitzeko prozedura iirekiari hasiera ematea, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profilean.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi HILABETEKO epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka eta baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

**Segundo.-** Aprobar los pliegos de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas particulares que han de regir la contratación del citado servicio.

**Tercero.-** Tramitar anticipadamente el expediente, quedando condicionada la adjudicación del contrato a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2020, para hacer frente a las obligaciones derivadas de dicha contratación.

**Cuarto**.- Disponer la apertura de la licitación por el procedimiento abierto para la adjudicación del contrato y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta Diputada Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer previa y potestativamente el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que se hayan recibido o puesto a disposición. En ambos casos no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FORU DIPUTATUAK,

Izptua.: Imanol Lasa Zeberio